

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure baliozko proposamenaren oinarria aho osasunari garrantzia eta ikusgarritasuna ematea da.

Horretarako, aho osasunaren arloan orain arte ikusi ez den ikuspegi integrala eskaintzen duen **aplikazio bat sortzea** proposatzen dugu, prebentzioa, jarraipena eta arreta profesionalerako sarbidea aplikazio bakarrean batuz.

AHO HORTZEN OSASUNAREN IKUSPEGI INTEGRALA

Gure aplikazioa beste proposamenetatik bereizten da, izan ere, ez delako ohikoa erabiltzaileak bere aho tratamendu guztiak **modu antolatuan erregistratuta** edukitzea: non egin diren, noiz, zer tratamendu mota izan diren eta zein material erabili diren. Informazio hori guztia eskuragarri izateak pazienteari bere **aho osasunaren kontrol handiagoa** ematen dio eta, aldi berean, profesionalekin komunikazioa errazten du.

HEZKUNTZA, PREBENTZIOA ETA HIGIENE OHITURAK

Era berean, ez dugu ikusi beste aplikaziorik **hortzak nola garbitu** behar diren modu bisual eta didaktikoan azaltzen duenik, eta aldi berean garbiketaren iraupena kontrolatzen duenik. Gure aplikazioak, gainera, informazio hori **egutegi** batean erregistratzen du, erabiltzaileak bere ohiturak aztertu eta jarraipena egin ahal izateko. Horrek, aho higiene egokiak sendotzen laguntzen du, batez ere haur eta pertsona zaurgarrien artean. Gainera, prebentzio moduan gure aplikazioan atal bat izango dugu, non **informazio gehigarria** edukiko dugu. Bertan, honako edukiak aurkitu ahal izango dira: nola garbitu hortzak, ohitura egokia, haria nola pasatu, erabilitako teknikak, kolutorioaren erabilera, ahoko gaixotasunak... honek etorkizunean aho arazoak izatea saihestu eta informazio egokia izatea bermatzen du.

KLINIKAREN SARBIDEA ETA PROIEKTUAREN IKUSPEGIA

Beste balio bereizgarri garrantzitsu bat da aplikazioak **klinika guztiak mapa interaktibo** batean erakusten dituela, bakoitzak eskaintzen dituen tratamenduekin batera. Horrez gain, erabiltzaileak aukera izango du **mezu zuzena** bidaltzeko lehen hitzordua eskatzeko,

prozesua errastuz eta osasun zerbitzuetara sarbidea hobetuz. Horrela, **prebentzioa** eta **arreta profesionala** modu naturalean lotzen dira. Atal honetan, aipatutakoaz gain klinika horren informazio guztia agertuko da, hala nola, langileak, egiten dituzten tratamenduak, argazkiak... besteak beste, erabiltzaileak ahalik eta informazio gehin izateko eta nahi duen klinika aukera ahal izateko.

Aipatzekoa da, halaber, aplikazio honek **kliniken eta pazienteen** arteko **harreman jarraia** sustatzen duela. Gaur egun, harreman hori askotan une puntualetara mugatzen da; gure proposamenarekin, ordea, komunikazioa etengabea izango da, konfiantza handiagoa sortuz eta tratamenduen jarraipen hobea ahalbidetuz.

Azkenik, gure proiektuaren ikuspegia argia da: kalitateari lehentasuna ematea kantitateari edo prezioari baino gehiago. Gure helburu nagusia ez da erabiltzaile kopuru handiena lortzea, baizik eta benetan aho osasuna hobetzea, hezkuntzaren, prebentzioaren eta arreta pertsonalizatuaren bidez. Horrek balio kualitatibo handiagoa eskaintzen dio erabiltzaileari, eta epe luzera, gizarte osoaren osasunean eragin positiboa du.